

Guztiok ura izatea, oinarrizko giza eskubidea

Uraren Mundu mailako Eguna dela eta, Caritasek gogorazten du planetako biztanleriaren herenak estres hidrikoa pairatzen duela

Uraren Mundu mailako Eguna dela eta, Caritasek, guztiok ura izateko dugun eskubidea, oinarrizko giza eskubide bilakatu dadin defendatzen du. Hala eta guztiz ere, mundu osoa jasaten ari den ur eskasiak, arazo eta sufrimendu ugari eragiten ari da, eta seguruenik etorkizunean komunitate askotan okerrera egingo du.

Caritasen nazioarteko sarea, Brasilen martxoaren 18tik 23ra ospatzen ari den Uraren VIII. Munduko Foroan parte hartzen ari da. Bertan, mundu mailan, segurtasun hidrikoa bermatzeko konponbideak eztabaidatzen dihardute, baita hartu-eman zuzena eta baliabide hidrikoen erabilera arduratsua, eta lehortek eta beste hondamendiak ekiditeko beste zenbait neurri.



Munduko populazioaren heren batek estres hidrikoa pairatzen duela uste da, eta 2025erako, uraren eskaria handitu ahala, bi herenek, eskasia hau pairatzea espero dute.

Gizakiak eragindako klima-aldaketak, baliabideak modu ez-eraginkorrean erabiltzeak, nekazaritza eta basogintzako jardunbide jasanezinak, eta meatzaritzak eragindako kutsadurak, ur-eskasia eragiten dute.

Mundu osoan egiten ari den lan humanitarioari esker, Caritas, familia eta komunitateek –batez ere pobretuenek– jasaten duten ur eskasiaren, eta honen ondorio kaltegarrien, lekuko da. Horrez gain, zenbait herrialdek jasan dituzten hondamendi naturalek, laguntza humanitarioaren eskaera ikaragarri handitzea eragin dute. Caritasen sarea, berehalako erantzuna ematen saiatzen da. Esaterako, zehazki, munduko hainbat eskualdetan jazotako krisiak nabarmentzen dira:

- Perun eta Kolonbian izan diren eurite bortitzek eragindako lur jauziak eta lokatz fluxuak, ehunka hildako eragin dituzte.

- Afrikako ekialdean, abereak sarraskitu, eta uztak suntsitu dituen lehortearen ondorioz, milioika pertsona hil dira gosez.

- Asiako hegoaldean, eurite bortitzek uholdeak eragin dituzte, eta 45 milioi pertsona kaltetuak izan dira.

- Etioipian 2016an, 10 milioi pertsona baino gehiago zeuden elikagaien eta ur horniduraren beharrean. 2017an, euriteak iritsi zirenean, hain izan ziren handiak, 300.000 lagunek ihesi joan behar izan zutela.



Giza hondamendiez gain, ur eskasia dela-eta, tentsio sozial, politiko, etniko eta erlijiosoek eragindako egoera kritikoak ere larriagotu daitezkeela ikusi du, aurrez aurre, Caritasek. Ekialde Ertainean, adibidez, herri palestinarrak gabezia larriak ditu ur horniketetan eta azpiegituretan.

Asian landa-garapeneko programetan inbertsiorik ez egiteak, Nepalén, 2,3 milioi pertsonen edateko urik ez izatea suposatzen du, eta urtero, bost urtetik beherako 700 haur hiltzen dira edateko uraren osasungarritasun eza eta saneamendu eskasaren ondorioz. Horrez gain, ureztatze-sistemak ez daude behar bezain garatuak, eta

komunitateak ez daude prestatuta urtaro hezeetan ura aurrezteko, eta etxeko-erabilerarako, eta nekazaritzan erabiltzeko, ur erreserbak izateko.

Uraren Mundu Foroan dagoela aprobetxatuz, Caritas Internationalis-ek parte hartzaileei honako hau bermatzeko eskatu die:



– Estatu bakoitzak, bere gain har dezala, guztiontzat –batez ere xumeenak– kalitatezko ura bermatzea.

-Ura baliabide kolektibo gisa ikustea, eta beraz gobernu ona behar duena. Ezinbestekoa da interesa duten alde guztiak (nazio zein tokiko gobernuak,

erakunde zibilek, eta enpresa pribatuek), elkarrekin lan egitea, baliabide hidrikoen gardentasuna, lankidetzak eta bidezko trukea sendotu dadin.

– Ura zentzuz eta erantzukizunez erabiltzeko neurriak hartzea, bai indibidualki, bai Estatu mailan ere, herrialde txiroenak elkartasunean oinarrituta.

Bereziki, Caritasek honako hau adierazi du:

– Uraren segurtasuna, funtsezkoa da erresilientzia eta arintze klimatikorako. Beharrezkoa da nekazaritza eta uraren arteko eredu integratzaile batean lan egitea, eta era honetan klima-aldaketaren eragina ahalik eta gehien arintzeko. Beharrezkoa da neurri horiek komunitate mailan txertatzea, komunitatearen portaera aldatzeko.

– Hondamendien arriskua murriztea eta prebentzioa, gero eta garrantzitsuagoak izango dira mundu mailako laguntza humanitarioan, klima-aldaketaren ondorioetara egokitzeko estrategiaren giltzarri gisa.

- Beharrezkoa da uraren kudeaketan inbertitzea, landa-komunitateek edateko ura eskura izan dezaten. Gobernuek eta interesa duten aldeak, uraren kudeaketan erantzukizuna eta iraunkortasuna bermatzeko lan egin behar dute, landako komunitateei beraien gaitasuna garatzen laguntzeko.
- Nekazariak lurzorua eta uraren kontserbazioan parte hartzea funtsezkoa da. Uraren kudeaketa jasangarria funtsezkoa da nekazaritza jasangarria ahalbidetzeko. Ureztatze jardunbide egokien gaineko kontzientzia areagotu egin behar da komunitateetan, urgalerak saihesteko eta luraren eta lanaren produktibitatea handitzeko.
- Interesa duten aldean arteko lankidetzak bilatu behar da, lehortearen aurrean prest egoteko, eta, hartara, alerta lasterreko estrategia bat martxan jartzeko; komunitateek urtaro hezeetan jasotako ur hori urtaro lehorretan erabili ahal izateko.

Urak, emakumea izena du.

"Ura femeninoa da. Fouta Toron aldean, Mauritania eta Senegalen artean, hamaika bider errepikatu da esaldi hau, eta agerian uzten du emakumearen rola baliabide natural honen kudeaketan duen garrantzia", dio Soledad Gutierrezek, Espainiako Caritasek, Mauritanian duen borondatezko lankideak. Berarentzat, "emakumea eta ura" binomioa "komunitateen garapenaren motorraren baliokideak dira". "Geroz eta onartuagoa dago emakumeek uraren kudeaketan duten rola, eta horrek, botere-harremanetan aldaketa bat eragin lezake", gaineratu du.

Sahel-eko egoeran aditua den Caritaseko lankide honentzat, "emakumeak dira, besteak beste, ura bezalako baliabideak garatzeko programen eta politiken arrakastaren gakoa. Erlazio hori gero eta nabariagoa da Mauritanian,



baliabide naturalak kudeatzeko batzorde mistoak, eta emakumeek kudeatutako baratzak ureztatzeko putzuak sortu baitira”.

Herrialde afrikar horretan, Espainiako Caritasek ibilbide luzea du bertako Caritasen garapenean laguntzen, Soledadek, zera azpimarratzen du; familiak kontsumitu dezaten, emakume kooperatibek diru-sarrerak sortzeko eta elikagaiak ekoizteko jarduera batzea lortu dute.

”Herrialde honetan, baliabide naturalen kontrola eta herentzia, gizonei bakar-bakarrik dagokie; emakumeek %50ean osatutako kudeaketa komiteen sorrerak, uraren erabilerari buruz iritzia emaneko eta erabakitze aukera izatea ahalbidetzen ari da, bai eta azpiegituren ustiapen eta mantenuan formazioa jasotzeko ere”, dio.